

KANALAK

Hasteko, gure kasuan nahiko sinplea da kanalak zehaztea, aplikazio bat delako. Gaur egun plataforma teknologiko asko daude eskaintzen dituztenak besteen aplikazioak deskargatzea haien bidez. Orduan, guk gure aplikazioa bukatuta bidaliko genioke plataforma hauetara, eta hauek arduratuko lirateke eskuragarri jartzeaz gure aplikazioa. Aplikazioa 2 euroko prezioa duenez, plataformaren bitartez bezeroek ordainduko lukete honen erabilerarengatik.



Plataforma asko daude banatzen dutenak aplikazioak bezeroei, baina, gure produktua eskainiko genuke plataforma fidagarrietan eta ezagutuenetan. Neurri hau erabaki dugu hartzea sahiesteko maulak eta batez ere, gure produktua segurtasuna eta fidagarritasuna transmititzeko, eta honen ondorioz, askoz ere bezero gehiago izateko.

Segur aski, plataforma hauek erabiltzeagatik prezioaren portzentail txiki plataformek eramango lukete, baina, merezi du inbertzio mota hau plataformetan egitea, galtzen dugun diruagatik askoz ere bezero gehiago erakarriko ditugulako.

Ondorioz, gure kanala izango da beste plataformen banatzeko zerbitzua, horrela lortuz bezeroen erekargarritasun handiagoa eta diru-sarrera altuagoak, nahiz eta, irabazitakoaren zati txiki bat plataformei eman behar.

Ekonolariak

